

## AGINTARIAK ETA LANGILERIA

### Izendapenak, egoerak eta gorabeherak

#### OSAKIDETZA-EUSKAL OSASUN ZERBITZUA

## 464

*95/2024 EBAZPENA, abenduaren 20koa, Gorlizko Ospitaleko zuzendari-gerentearena, zeinaren bidez Nagore Alonso Gabantxo andrea eta Sandra Vitorica Ayerdi andrea Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko Gorlizko Ospitaleko Ospitalizazio Arloko Gainbegirale izendatzen baitira, izendapen askez.*

Abuztuaren 2ko 65/2024 Ebazpenaren bidez, Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko Gorlizko Ospitaleko Ospitalizazio Arloko Gainbegirale lanpostu bi izendapen askez betetzeko deialdia egin zen.

Epaimahaiak aurkeztutako eskabideen balorazioa eta dagokion izendapen-proposamena egin ondoren, Nagore Alonso Gabantxo eta Sandra Vitorica Ayerdi andreek dituzten ezagutza akademiko eta profesionalak kontuan izanik, erabaki du pertsona horiek izendatzea Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko Gorlizko Ospitaleko Ospitalizazio Arloko gainbegirale, izendapen askez.

Beraz, bat etorritz Euskadiko Antolamendu Sanitarioari buruzko ekainaren 26ko 8/1997 Legearen 28. artikulua hiru garren arau komunarekin, Osakidetzaren lanpostu funtzionalak arautzen dituen uztailaren 19ko 186/2005 Dekretuarekin eta azaroaren 11ko 255/1997 Dekretuarekin,

#### EBAZTEN DU:

Lehenengoa.– Nagore Alonso Gabantxo andrea eta Sandra Vitorica Ayerdi andrea Ospitalizazio Arloko gainbegirale izendatzea, Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko Gorlizko Ospitalean.

Bigarrena.– Izendapen horiek 2024ko abenduaren 21etik aurrera izango dituzte ondorioak.

Hirugarrena.– Izendapen askeko prozeduraren bidez lanpostuetarako izendatutako langileak diskrezionalki kendu ahal izango ditu kargutik izendapena egin zuen organoak. Lanpostua uzteak edo lanpostutik aldatzeak beste lanpostu funtzional batera lekualdatzea ekarriko du, eta, nolana ere, interesdunak titular gisa duen kategoriaren berezko baldintzei eutsiko zaie, eta ezaugarri berberak dituen lanpostuari atxikiko zaio, lehentasunez izendapenaren aurretik betetzen zuen antolamendu- eta lurralde-eremu berean. Atxikipenak kargua utzi eta hurrengo egunetik aurrera izango ditu ondorioak, eta Osakidetzan ezartzen den prozeduraren arabera egingo da. Lanpostua betetzeko eskatzen diren betekizun eta baldintza guztiak bete beharko ditu.

Laugarrena.– Interesdunei Ebazpen honen berri ematea.

Bosgarrena.– Ebazpen honen aurka gora jotzeko errekurtsioa aurkez dakioke Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zuzendari nagusiari, hilabeteko epean, Ebazpen hau EHAAn argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

Gorliz, 2024ko abenduaren 20a.

Gorlizko Ospitaleko zuzendari-gerentea.

EB (3433/2004 Ebazpena, abenduaren 13koa, Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zuzendari nagusiarena, Gorlizko Ospitaleko zuzendari-gerentearen edo zuzendarien karguak hutsik edo kargudun horiek kanpoan zein gaixorik daudenerako ordezkapen-erregimena ezartzen duena).

Gorlizko Ospitaleko zuzendari medikoa,  
MARIA ISABEL MONTES ÁLVARO.